

## KASUAREN KLINIKA




### IKUSPEGI BATERATUA

Kasuen klinikak talde bat edo lankide-talde bat gidatzen dute prozesu baten bidez. Prozesu horretan, emaile batek kasu bat aurkezten du, eta hiruzpalau lankidek edo taldekidek osatutako taldeak aholkulari gisa laguntzen du, U-prozesuaren eta prozesuen kontsultaren printzipioetan oinarrituz. Kasuen klinikak aukera ematen diete parte hartzaileei:

- Erronka edo galdera bat ikusteko modu berriak sortzeko
- Erronkari edo galderari erantzuteko prozedura berriak garatzeko

### HELBURUA

Lankideen jakinduria eta esperientziara heltzea, lankide bati lidergo-erronka garrantzitsu eta berehalako bati hobeto eta modu berritzaileagoan erantzuten laguntzeko.



### ERABILERAK ETA EMAITZAK

- Konfiantza- eta energia-maila altua taldeko kideen artean
- Erabili: mindfullnesarekin eta entzuteko jardunbideekin

### ADIBIDE BAT

Master programa bateko parte hartzaileek ikasketa taldeak osatzen dituzte. Lehen kasuaren klinika programan daudela egiten dute eta, ondoren, prozesua hileroko deietarako erabiltzen dute, parte hartzaile bakoitzak kasu bat aurkezteko aukera izan dezan.

### BALIABIDEAK

C. Otto Scharmer, (2009) Theory U: Learning from the Future as it Emerges. Berrett-Koehler. San Frantzisko.

### PRESTATU

#### Jendea eta lekua

- Lauzpabost laguneko taldeak
- Taldeek distrakziorik gabe lan egin ahal izateko adinako espazioa

#### Ordua

- Gutxienez 70 minutu behar dira

#### Materialak

- Aulkiak, talde bakoitza zirkulu batean edo mahaiaren inguruan eser dadin
- Prozesuaren liburuxka

## PROZESUA

ROLAK ETA GARAPENA

**Kasu-emailea:** partekatu zure nahi pertsonala eta ahalduntze-erronka, gaur egungoa, zehatza eta garrantzitsua dena, eta zu funtsezko jokalaria gisa zaituena. Kasu hori 15 minutuan aurkezteko gai izan behar zara, eta zure lankideen feedbackak mesede egin behar dio kasuari. Sartu zure ikaskuntza pertsonaleko atalasea (joaten utzi behar duzuna eta ikasi behar duzuna).

**Coachak:** entzun sakon, ez saiatu arazoa "konpontzen", aitzitik, entzun sakon kasu emaileari eta, aldi berean, jarri arreta istorioak gogora ekartzen dizkizun irudi, metafora, sentimendu eta keinuetan.

**Denboraren arduraduna:** coachetako batek denbora kudeatzen du.

### Antolatu jarduerak.

URRATSA	DENBORA	JARDUERA
1	2 min	Aukeratu kasu-emailea eta denboraren arduraduna nortzuk izango diren
2	15 min	<p><u>Kasu-emaileak asmoen adierazpena egitea</u></p> <p>Har ezazu tarte bat zure kasua aurkezteko duzun arrazoiaren inguruan hausnartzeko. Jarraian, argitu honako galdera hauek:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Egungo egoera: zer erronka edo funtsezko galderari egin behar diozu aurre?</li> <li>2. Tartean daudenak: nola ikus dezakete besteek egoera hau?</li> <li>3. Asmoa: zer etorkizun sortu nahi duzu?</li> <li>4. Ikaskuntza-atalasea: zer utzi behar duzu joaten eta zer ikasi behar duzu?</li> <li>5. Laguntza: non behar duzu informazioa edo laguntza?</li> </ol> <p>Coachek sakon entzuten dute eta argitzeko galderak egin ditzakete (ez dute aholkurik ematen!)</p>
3	3 min	<p><u>Isiltasuna</u></p> <p>Entzun zure bihotzari: konektatu zure bihotzarekin eta entzuten ari zarenarekin.</p> <p>Entzun zer esaten duen: zer irudi, metafora, sentimendu eta keinu sortzen dira? Zeintzuk dira entzun duzunaren esentzia jasotzen dutenak?</p>
4	10 min	<p><u>Islatzea: irudiak (burua zabalik), sentimenduak (bihotza zabalik), keinuak (borondatea zabalik)</u></p> <p>Coach bakoitzak isiltasunean edo kasuaren istorioa entzun bitartean sortu diren irudi/metafora, sentimendu eta keinuak azaltzen ditu.</p> <p>Coach guztiei entzun ondoren, kasu baten emaileak berak entzundakoa islatzen du.</p>

5	20 min	<p><u>Solasaldi sortzailea</u></p> <p>Denek hausnartzen dute kasu-emailearen oharren inguruan, eta elkarrizketa sortzaile bati ekiten diote, ohar horiek kasu-emailearen egoerari eta bideari buruz eskaintzen dituzten ikuspegi berriei buruz. Zoaz elkarrizketaren jarioarekin. Eraiki bestearen ideien gainean. Egon kasu-emailearen zerbitzura, bere erronkari irtenbide edo konponbide bat emateko presiorik gabe</p>
6	8 min	<p><u>Amaierako iruzkinak</u></p> <p>Coachek Kasu-emaileak: nola ikusten ditut orain nire egoera eta aurrean dudan bidea? Esker onak eta aintzatespenak: elkarrenganako benetako estimu-adierazpena.</p>
7	2 min	Banakako egunerokoa, ikaskuntza-puntuak jasotzeko.

# INTERES TALDEEI ELKARRIZKETAK EGITEA

## Ikuspegi ororra

Alderdi interesdunei egiten zaizkien elkarrizketak profesionalek egiten dituzte, beren alderdi interesdun nagusiekin; horrek barne har ditzake bezeroak, nagusiak, mendekoak edo maila berekoak, bai erakundekoak, bai erakunde kanpokoak. Elkarrizketei esker, elkarrizketatuen azalean jar daitezke eta haien zeregina alderdi interesdun horien begien bidez ikus dezakete.



## HELBURUA

Alderdi interesdunekin egindako elkarrizketa baten helburua haien lana alderdi interesdunen ikuspegitik ikustea da. Honako galdera hauei erantzuten die: zer nahi dute nire alderdi interesdunek niganetik? Zertarako behar naute?

Alderdi interesdunei egindako elkarrizketak U prozesuaren fase guztietan erabil daitezke. Erabilerarik ohikoena proiektu bat prestatzeko fasean izaten da.

## PRINTZIOAK

- Elkarrizketaren helburuaren eta prozesuaren inguruan gardentasuna eta konfiantza sortzea; konexio pertsonala ezartzea hasieratik.
- Eten epaitzen duen zure baitako ahotsa (EA), egoera zure elkarrizketatuaren begietatik ikusteko. Une honetan axola duena ez da elkarrizketatuak esaten dizunarekin ados ote zauden. Orain axola duena da egoera alderdi interesdunaren begietatik ikusten ikas dezazun.
- Sar zaitetz zure ezjakintasunean (sar zaitetz zabalik duzun buruan): elkarrizketak aurrera egin ahala, adi egon eta konfiantza izan bururatzeko zaizkizun galderetan, ez izan beldurrik galdera sinpleak edo oinarriko ezagutzarik eza adieraz dezaketean galderak egiteko.
- Sar zaitetz zure entzute apreziatiboan (sar zaitetz zabalik duzun bihotzean): konektatu elkarrizketatuarekin zure burua eta bihotza zabalik dituzula. Apreziatu eta gozatu entzuten duzun istorioaz eta jarri elkarrizketatuaren lekuan.
- Sar zaitetz entzutera etorkizuneko eremutik (sar zaitetz zabalik duzun borondatera): saiatu arreta jartzen zure elkarrizketatuarentzat etorkizunerako azaleratu nahi duela sentitzen duzun aukerarik onenean. Nolakoa izan daiteke etorkizun hori?
- Baliatu presentziaren eta isiltasunaren indarra: elkarrizketatzaile gisa egin dezakezun esku-hartzerik eraginkorrenetako bat elkarrizketatuarekin eta egungo egoerarekin erabat presente egotea da, eta isilune labur bat ez etetea. Isiluneak elkarrizketa baten maila islatzailean sakontzeko abiapuntu garrantzitsuak izan daitezke. Gehienetan aukera horiek ez dira baliatzen elkarrizketatzailea parte hartzera eta hurrengo galdera egitera behartuta sentitzen delako. Izan ausarta. Geratu ORAINaren irekitasunarekin.

## ERABILERA ETA EMAITZAK

Alderdi interesdunei egindako elkarrizketek honako hauek eskaintzen dituzte:

- Bere lanak alderdi interesdunen ikuspuntutik duen garrantziari buruzko argitasun hobetua.
- Alderdi interesdunek zuk haientzat sortzen duzun balioa nola ebaluatzen duten ulertzea.
- Egoera bat azkar hobetzeko ideiak.
- Ezabatu beharreko oztupoak eta eragozpenak identifikatzea.
- Alderdi interesdun gakoekin harreman pertsonal hobea eta sakonagoa izatea.
- Erabili: Entzuteko eta erabateko arretarako tresnekin.

## KASUAREN KLINIKA




### IKUSPEGI BATERATUA

Kasuen klinikek talde bat edo lankide-talde bat gidatzen dute prozesu baten bidez. Prozesu horretan, emaile batek kasu bat aurkezten du, eta hiruzpalau lankidek edo taldekidek osatutako taldeak aholkulari gisa laguntzen du, U-prozesuaren eta prozesuen kontsultaren printzipioetan oinarrituz. Kasuen klinikek aukera ematen diete parte hartzaileei:

- Erronka edo galdera bat ikusteko modu berriak sortzeko
- Erronkari edo galderari erantzuteko prozedura berriak garatzeko

### HELBURUA

Lankideen jakinduria eta esperientziara heltzea, lankide bati lidergo-erronka garrantzitsu eta berehalako bati hobeto eta modu berritzaileagoan erantzuten laguntzeko.



### ERABILERAK ETA EMAITZAK

- Konfiantza- eta energia-maila altua taldeko kideen artean
- Erabili: mindfullnesarekin eta entzuteko jardunbideekin

### ADIBIDE BAT

Master programa bateko parte hartzaileek ikasketa taldeak osatzen dituzte. Lehen kasuaren klinika programan daudela egiten dute eta, ondoren, prozesua hileroko deietarako erabiltzen dute, parte hartzaile bakoitzak kasu bat aurkezteko aukera izan dezan.

### BALIABIDEAK

C. Otto Scharmer, (2009) Theory U: Learning from the Future as it Emerges. Berrett-Koehler. San Frantzisko.

### PRESTATU

#### Jendea eta lekua

- Lauzpabost laguneko taldeak
- Taldeek distrakziorik gabe lan egin ahal izateko adinako espazioa

#### Ordua

- Gutxienez 70 minutu behar dira

#### Materialak

- Aulkiak, talde bakoitza zirkulu batean edo mahaiaren inguruan eser dadin
- Prozesuaren liburuxka

## ADIBIDEA

Lidergo-gaitasuna sortzeko tailer bateko parte hartzaile bat:

"Iritsi berria nintzenez, erakundearen konfiantza handirik ez zegoela sentitu nuen. Galdera horiek guztiak gogoan nituela, "interesdunen" elkarrizketak egiteko eskatu zidaten, lidergo-mintegi bat prestatzeko. Lehenik eta behin, konturatu nintzen alderdi interesdunei egiten zaizkien elkarrizketen eta elkarrizketa arrunten artean 180 graduko aldea dagoela. Ez dago irtenbiderik eta negoziatorik aurrez prestatutako nire planei buruz, eta ez dira beste pertsona konbentzitzen saiatzen. Aitzitik, nire ikuspegia aldatu eta alderdi interesdunen lekuan jarri behar izan nintzen".

"Nola begiratzen diozu nire lanari? Bilatu egin behar izan nuen, jakiteko nola zerbitzatu nire alderdi interesdunei, arrakasta izan zezaten... Baina gero harrigarria izan zen: elkarrizketak oso baliagarriak izan ziren. Hilabeteetako lana eta komunikazioa aurreztu dizkirate! Nire alderdi interesdunen ikuspegitik gauza asko ikasi nituen modu irekian, "komunikazio normaletan" inoiz entzungo ez nituzkeenak. Elkarrizketak egin eta gutxira, ezagutzen ez nituen pertsona batzuk nigana etorri ziren eta zera esan zidaten: 'Izan dituzun komunikazio ireki horien berri izan dugu. Konfiantza handia sortu dute. Nola lortu duzu? "

## BALIABIDEAK

C. Otto Scharmer, (2009) Theory U: Learning from the Future as it emerges. Berrett- Koehler. San Frantzisko.

## Prozesua

### PRESTATZEA

#### Pertsonak eta lekua

Alderdi interesdunei egiten zaizkien elkarrizketek hobeto funtzionatzen dute aurrez aurre egiten direnean. Aurrez aurreko elkarrizketak egiterik ez badago, telefonoz egin beharko dira.

#### Denbora

Bi zifrak zenbatespenak dira, eta testuinguru zehatzera egokitu behar dira:

- 30-45 minutu telefonoz bidezko elkarrizketarako.
- 30-90 minutu aurrez aurreko elkarrizketarako.

Eman 30 minutu gehiago elkarrizketa baino lehen, prestatzeko, bai eta beste 30 minutu elkarrizketaren ondoren, berrikusteko.

#### Materialak

Erabili elkarrizketaren jarraibideak (galdetegia), baina ez izan zalantzarik behar duzunean desbideratzeko. Papera eta boligrafoa oharrak idazteko.

### SEKUENTZIA

#### 1.urratsa

- Identifikatu zer alderdi interesdun diren garrantzitsuak zure egungo egoerarako edo erronka/aukerarako.
- Zehaztu/berrikusi galderak, testuinguru zehatzera egokitzeko. Hitzorduak programatu.
- Erabaki elkarrizketatuari galderak aldeztu aurretik bidaliko ote dizkiozun.

#### 2.urratsa

- Elkarrizketatua ezagutu aurretik, eman aukera isilik prestatzeko edo isilune bat izateko.
- Adibidez, hartu 20-30 minutu elkarrizketa bat egin baino lehen zure burua erlaxatzeko eta elkarrizketari burua eta bihotza zabalik dituzula aurrea hartzeko.

#### 3.urratsa

Elkarrizketan zehar, entzun burua eta bihotza zabalik dituzula, idatzi oharrak, eta jarraitu honako printzipio hauek:

- Egin galderak espontaneoki: galdetegitik desbidera zaitezke galdera garrantzitsuak bururatsen bazaizkizu. Galdetegia zuri eta zure lanari laguntzeko diseinatuta dago, ez kontrakoa egiteko.
- Galdetegiaren ereduak:
  - Zer da zure helburu garrantzitsuena eta nola lagun diezazuket hori burutzen? (Zertarako behar nauzu?)
  - Zer irizpide erabiltzen duzu zure lanean egin dudak ekarpenak arrakasta izan duen ebaluatzeko?
  - Datozen sei hilabeteetan nire erantzukizun-eremuan bi gauza aldatzeko aukera izango bazenu, zer bi gauzek sortuko lukete balio eta onura gehien zuretzat?

#### 4.urratsa

Elkarrizketaren ondoren, hartu denbora funtsezko ideien inguruan hausnartzeko, idatzi zure pentsamendu nagusiak.

#### 5.urratsa

Itxi iruzkinen begizta: elkarrizketa bakoitzaren ondoren, bidali esker oneko ohar bat elkarrizketatuari (hurrengo 12 orduen barruan).

# Tresna: 3D mapaketa

## IKUSPEGI OROKORRA

3D mapaketa ideia, ekimen edo sistema batek zer nolako bilakaera izan dezakeen ulertzeko dimentsio eta ikuspegi ugari emateko erabiltzen dugun tresna da.

Praktikaren indarra zure eskuekin lan egitean datza, zure egungo egoeran eta hark izan dezakeen bilakaeran soilik pentsatu beharrean. Zure eskuen ezagutzaz fidatzen bazara, aukera gutxiago izango duzu orainari buruz pentsatzeko eta etorkizuna irudikatzeko ohiko moduetara itzultzeko, eta aurrera egiteko modu berriak aurkitzeko aukera handiagoak izango dituzu.

## PROZESUA

### Prestatzea

#### 1) Jendea eta lekua

3D mapaketa banaka edo taldean egin daiteke. Kolektiboki lan egiten dugunean, taldearen tamaina ideala 5-8 lagun bitartekoa izango da. Segurtasun-tartearekin lotutako jarraibideak betetzeko, taldeak 3D mapaketa ariketa linean egin dezake.

#### 2) Iraupena

Banaka egiten baduzu, ordubete inguru beharko duzu prozesu osorako. Taldean, berriz, eman 2 ordu prozesurako eta txostenerako. Materialak lortzeko eta prestatzeko ere denbora beharko duzu.



### 3) Material osagarriak

Ikus 3D mapaketa-tailerreko materialak (aurrerago).

### 4) Rolak

- Banaka egin behar baduzu, zoaz hurrengo atalera. Taldean ari bazara:
- Talde nagusiko bideratzaile/eskriba bat.
- 5-8 pertsona gehienez talde bakoitzeko (bideratzailea barne). 5-8 laguneko hainbat taldek aldi berean egin dezakete 3D modelaketa.

## Sekuentzia

### **1.urratsa: ikuspegiari, asmoari eta talde nagusiari buruz hausnartzea**

Egungo errealitatea mapatzen hasi baino lehen, hartu minutu batzuk prototipoak sortzeko lehen bi printzipioetan oinarritzen diren hurrengo galderez hausnartzeko. Idatzi zure gogoetak eguneroko batean edo paperezko orri batean:

Ikuspegia eta asmoa mamitzea:

- Zerk jaio nahi du nire bizitzan eta lanean oraintxe bertan?
- Zer etorkizunak du nire beharra gauzatu ahal izateko?
- Zer galderek dute energia niretzat orain?
- Zer galdera esploratu nahi ditu nire prototipoak?

*Osatu talde nagusi bat:*

- Nork lagundu diezadake gehien nire asmoa gauzatzen?
- Zerbait txikiarekin hasiz eta gero zirkulua zabalduz, zein izan daiteke nire
  - o talde nagusia?
  - o ordezeko talde nagusia?
  - o laguntza-sarea?

## 2. urratsa: egungo errealitatea mapatzea

Talde gisa (edo banaka), erabili lortu dituzun materialak egungo errealitatea irudikatzen duen eredu bat osatzeko, zeinak sortu nahi duzun etorkizuneko aukeraren hazia barne hartuko duen. Ereduko objektu bakoitzak elementu bat, nolakotasun bat (barnekoa edo kanpoko) edo sistemaren alderdi interesdun bat adieraziko du. Utzi zure eskuei eredia sortzen (ez gehiegi pentsatu). Sortu zure eredia 10-15 minututan, banaka edo bikoteka lan egiten baduzu.

Taldeentzat: online lan egiten baduzu, izendatu taldeko kide bat (kamera-konfigurazio ona duena) taldearen maparen titular. Maparen titularrak objektuak mahai gainean jarri ahala, taldekideekin objektuak zer irudikatzen duen eztabaida dezakete. Gero, taldeko beste kide batzuk txandaka ibil daitezke maparen titularrari gauzak tokiz mugitzeko adierazteko. Aurrez aurre lan eginez gero, taldekideek ereduako elementuak izendatu eta gehitu ditzakete. Edonola ere, elementuak banakako txandatan gehitu eta mugitu behar dira, prozesuak aurrera egin ahala elkarrekin sortzeko jarioan murgiltzeko. Barne hartu: barneko eta kanpoko errealitateak, barneko eta kanpoko alderdi interesdunak eta beren rola. Prozesua 25-30 minutukoa izan beharko litzateke taldean lan eginez gero.

## 3. urratsa: gogoeta hainbat norabidetatik

Ibili ereduaren inguruan eta egin gogoeta hainbat norabidetatik. Taldean lanean ari bazara, bideratzaileak/eskribak jarraian dauden galderak ozen irakurriko ditu taldearentzat eta funtsezko datuak paperezko arbelean idatziko ditu.

Bakarrik lan egiten baduzu, eskura izan beharko duzu ariketa orri hau eta jarraian dauden galderak zuretzat irakurri beharko dituzu.

### *"0.8": Nire prototipoaren abiapuntuko ideia*

- Zer gustatzen zait eredu honetan?
- Non ikusten ditut etorkizuneko aukeren haziak, etorkizuna eginez esploratzea ahalbidetuko didan prototipo bat azkar sortzeko modukoak?
- Nola sentituko lirateke besteak egoera honekin?

### *Plataformak eta espazioak ("lurzorua")*

- Zeintzuk dira alderdien arteko funtsezko harremanak (loturak edo banaketak) eta zer sentimendu sortzen dituzte harreman horiek?
- Nola sor ditzaket/ditzakegu "lurzoru" emankorra eratuko duten lankidetzak-plataformak eta ordezkoko espazio sortaileak, nire "hazia" edo abiapuntuko ideia hazi eta gara dadin?

### *Entzun unibertsoari*

- Zeintzuk dira alderdi interesdunengandik entzuten ditudan/ditugun funtsezko mezuak?
- Nire prototipoak benetako zer beharri erantzun nahi dio?
- Zeintzuk dira, ezabatuz gero, egungo sistemari garatzen lagunduko lioketen oztopo edo botila-lepo garrantzitsuenak?

### *Burua, bihotza eta eskua integratzea*

- Non daude botere-iturriak sistema honetan?
- Zure ustez, zein da egoera honetan eskatzen den etorkizuneko potentzialik handiena?
- Etorkizuneko potentzial handiena lurreratzeko, zer egin behar dut/dugu?

## **IV. urratsa:**

- Orain aldatu ereduak, sortzen ari den eta zerbitzatu nahi duzun etorkizuna

hobeto ordezkatu dezan. Taldean ari bazara, egin elkarrekin.

- Hasi nahitako isilune batekin. Hartu minutu bat edo bi eta, besterik gabe, begiratu ereduari galdera hau gogoan duzula: Etorkizuneko zer aukera goren ari da manifestatzen/jaiotzen saiatzen?
- Gero, minutu pare baten ostean, isilik, ekin eredu aldatzeko prozesuari, elkarrekin taxutu nahi duzuen etorkizuna hobeto ordezkatu dezan. Taldeek kolektiboki egin dezakete urrats hau.

## V. urratsa: Funtsezko ikuspegiak biltzea eta jasotzea

(Taldeentzat: eskriba batek funtsezko puntuak paperezko arbelean jasotzeko ditzake)

Hausnartu 1. eta 2. eredu arteko desberdintasun nagusien inguruan

- Zein dira 1. eta 2. eredu arteko egiturazko desberdintasunik garrantzitsuenak?
- Zein izan zen eredu zaharra (1. eredu) egitura berri (2. eredu) bihurtu zuten esku-hartze gakoak?
- Zer egin zenuen aurrenik? Zein izan zen egin zenuen lehen aldaketa esanguratsua?

## VI. urratsa: Ikuspegia, asmoa eta talde nagusia

Hausnartu ereduak sortzearen esperientziak nola mamitzen edo aldatzen dituen zure ikuspegia eta asmoa, bai eta talde nagusiaren definizioa ere. Kontsultatu zure egunerokoan 3D mapaketa egiten hasi aurretik idatzi zenuena. Eguneratu sarrerak, behar izanez gero.

*Ikuspegia eta asmoa mamitzea:*

- Zerk jaio nahi du nire bizitzan eta lanean oraintxe bertan?
- Zer etorkizunak du nire/gure beharra gauzatu ahal izateko?
- Zer galderek dute energia niretzat orain?
- Nola argitu eta garatu ditzakegu nire prototipoak esploratu nahi dituen galderak?

*Osatu talde nagusi bat:*

- *Nork lagundu diezadake gehien nire asmoa gauzaten?*
- *Zerbait txikiarekin hasiz eta gero zirkulua zabalduz, zein izan daiteke nire talde nagusia?*
  - *ordezko talde nagusia?*
  - *laguntza-sarea?*

### **VII. urratsa: Ekintzak**

Zer ekintza planifika ditzaket datozen 3-5 egunetan etorkizuna eginez esploratzeko? Ideiaren bat behar baduzu, jo lehenago egin duzunera (V. urratsa).

# IKASTEKO BIDAIA

## Ikuspegi orokorra

Ikasteko bidaiek parte hartzaileak beren eguneroko errutinatik ateratzen dituzte, eta antolaketa, erronka edo sistema sentitzeko aukera ematen diete, alderdi interesdun desberdinen ikuspegitik. Ikasteko bidaiek parte hartzaileak jorratzen ari diren galderarentzat garrantzitsuenak diren leku, pertsona eta esperientzietara eramaten dituzte.



Ikasteko bidaia horiek aukera ematen diete parte hartzaileei:

- Ingurune ezezagunetan mugitzeko.
- Testuinguru desberdinetan murgiltzeko.
- Esperientzia esanguratsuetan murgiltzeko.

Urruntze soziala dagoen bitartean, ikasteko bidaiak sarera egokitzea konplexuagoa izango da. Jokatu sormenez bideokonferentzia bidez egituratu daitezkeen elkarrizketa motei dagokienez eta aztertu zer nolako aurrez aurreko behaketak izan daitezkeen seguruak tokiko segurtasun-tarteen jarraibideak kontuan hartuta (baldin badaude). Osorik aire zabalean izango den bidaiarik presta dezakezu, segurtasun-tarteak ahalbidetzen dituzten jarduerekin? Aurrez aurreko eta lineako elkarrizketen konbinazioen bat presta dezakezu? Linean egindako ikasketa bidaien adibideak aurkituko dituzu [Global Forum 2020ren artxiboan](#) (*Etorkizuneko seinale eta haziak, hirugarren blokea atalean*).

## Helburua

Parte hartzaileei ikusteko eta entzuteko orduan dituzten ereduak apurtzeko aukera ematea, ikuspegi eta esperientzia desberdin eta garrantzitsu batean murgilduz. Ikasteko bidaiak lagungarriak izan daitezke, halaber, funtsezko alderdi interesdunekin harremanak eraikitzeko eta sistemaren ikuspegia lortzeko.

## Printzipioak

Ikasteko bidaia sakon batek hiru entzute mota baliatzea eskatzen du:

1. Besteei entzutea: zurekin elkartu direnek eskaintzen dizutena.
2. Zeure buruari entzutea: zure barrutik azaleratzen sentitzen duzuna.
3. Azaleratzen ari den guztiari entzutea: konektatu duzuneko kolektiboan eta komunitatean azaleratzen ari dena.

Jo potentzial handieneko lekuetara. Ezagutu elkarrizketatuak bere testuinguruan: bere lantokian edo bizi diren lekuan, ez hotel edo hitzaldi-areto batean. Hori naturalki gertatzen da jendea Zoom bidez ezagutzeari; adeitasunez eskatu behar diezu web-kamera piztuta edukitzeko, baldin eta eroso sentitzen badira. Pertsonak beren testuinguruan ezagutzen dituzunean, asko ikasten duzu gertatzen ari dena behatze hutsarekin. Har ezazu ikusten duzun guztia abiapuntu gisa, zure elkarrizketatuaren benetako bizitzaren testuinguruari buruz gehiago ikasi ahal izateko galderak inprobisatzeko.

Behatu, behatu eta behatu: eten epaitzen duen zure baitako ahotsa (EA) eta ahots zinikoa (AZ), eta konektatu balioesteko eta harrizkeko senarekin.

Epaiaketa eta zinismoa bertan behera uzteko gaitasunik gabe, ikerketa prozesu eraginkor bat aurrera eramateko ahalegin guztiak alferrikakoak izango dira. EA eteteak epaitzeko ohitura alde batera uztea esan nahi du, eta esploratzeko, arakatzeko eta harrizkeko gunek berri bat irekitzea.

### Erabilerak eta emaitzak

- Sistema baten alderdiei eta horien harremani buruzko kontzientzia areagotzea.
- Sistemako alderdi interesdunen eta parte hartzaileen ikuspegiez gehiago jabetzea.
- Alderdi interesdunen eta parte hartzaileen arteko konexioak.
- Prototipoetarako ideiak.
- Erabili: entzuteko tresnekin.

### Adibidea

Automobilgintzako enpresa bateko produktuak garatzeko taldeak ikasteko bidaiak erabiltzea erabaki du, bere pentsamoldea zabaltzeko eta ideia berriak sortzeko. Bere automobilen motorren autokonponketarako gaitasuna garatzea zen bere zeregina. Taldeak hainbat enpresa, ikerketa-zentro eta Txinako medikuntza tradizionalako adituak bisitatu zituen. Azkenean, Txinako medikuntza tradizionalako adituekin egindako bisitek sortu zituzten proiektu honetarako ideia berritzaileenak (automobilaren "lo-egoerarako", hau da, autoa erabiltzen ez den aldietarako autokonponketa-funtzioak diseinatzeko ideia barne).

## Prozesua

### Prestatzea

Jendea eta lekua

Taldea 5 bat laguneko azpitaldeetan banatzen da. Taldearen osaera garrantzitsua da, ikuspegi-nahasketa batek ikasteko bidaien eragina hobetzen duelako.

Zehaztu potentzial handiko lekuak ikasteko bidaietarako. Parte hartzaile talde osoa hainbat lekutara joan beharko litzateke (bilera birtualen bidez edo aurrez aurre), honako hauei buruzko informazioa eman dezaten:

- Sistemaren funtsezko alderdi interesdunen ikuspegiak.
- Sistema horren alderdiak.
- "Ahotsik gabeak": sisteman dauden pertsonak, normalean entzuten edo ikusten ez direnak.

Sistemaren ideia bat izateko modu on bat bere "muturreko erabiltzaileen" ikuspegia baliatzea da: izan daitezke lanaren edo erakundearen produktuen behar handia edo espezifikoak duten pertsonak, desabantaila partikular batean edo bazterretan egon daitezkeenak, adibidez, osasun-sistema baterako sarbidea behar duen urruneko eremu batean bizi den pertsona bat.

Denbora

Ikasteko bidaia baten iraupena estaltzen den eremu geografikoaren tamainaren edo mantentzen diren elkarrizketen kopuruaren arabera da. Gomendatzen da gutxienez egun bat eskaintzea tailer batean egiten diren ikasketa bidaiari, eta hainbat egun edo aste eskaintzea (batzuetan hainbat hilabetetan banatuta) proiektu handiago batean egiten direnei.

Materialak

Anfitrionak ados badaude, bidaiari argazkiak egitea, bideoak grabatzea eta/edo lineako elkarrizketaren zatiak grabatzea gomendatzen da. Horiek baliagarriak izan daitezke beste taldeekin egiten diren berrikuspenetan, bai eta parte hartzaileentzako oroigarri gisa ere.

Aurrez aurre bada, beste material batzuk ere bil daitezke, anfitrionari baimena eskatu ondoren. Boligrafo bat eta eguneroko bat behar dira, bidaiari zehar eta bidaiariaren ondoren oharrak idazteko.



## Sekuentzia

### 1. urratsa

Identifikatu ikasteko bidaiak: aurkitu zuri eta taldeari ikuspegi berriak emango dizkizueten lekuak, pertsonak, erakundeak.

### 2. urratsa

Prestatu talde gisa honako hauek eztabaidatuz:

- Zein da espermentatuko dugun testuingurua?
- Zer eragile nagusirekin hitz egingo dugu? Nortzuk dira?
- Zer gai aztertu nahi ditugu?
- Zer suposizio dakartzat? Zer espero dut?
- Azaldu orain arte izan duzun ikaskuntza-esperientzia adierazgarriena.

Hasteko, garatu zure kontsulta-prozesua gidatuko duen galdetegi labur bat (7-10 galdera). Eguneratu zure galdeketa kontsulta-prozesuak aurrera egin ahala.

Prestatu anfitrioiak: adierazi bisitaren asmoa eta xedea. Jakinarazi taldearentzat baliagarriena bere eguneroko ekintza "normalen" ideia bat izatea dela, aurkezpen antzeztu baten ordez. Saiatu "erakutsi eta kontatzeko" egoerak saihesten.

### 3. urratsa

Talde txikiak anfitrioiaren kokapenera joaten dira edo anfitrioiarekin birtualki elkartzen dira.

Bileran: fida zaitetz zure intuizioaz eta egin elkarrizketatik sortzen diren benetako galderak. Galdera sinpleak eta benetakoak egitea eragin-puntu garrantzitsua da, arreta jokoan dauden indar sistemiko sakonenetako batzuetara eramateko edo bideratzeko.

Erabili entzute sakona elkarrizketarako espazioa mantentzeko tresna gisa. Elkarrizketatuak galdera bati erantzuten amaitzen duenean, ez hasi automatikoki hurrengo galderarekin. Adi orainetik sortzen denari.

Hona hemen ikasteko bidaietarako ereduazko galdera batzuk:

- Zer esperientzia edo bidaia pertsonalek eraman zintuen zure egungo lanpostura?
- Zer arazo edo erronkari egin behar diezu aurre?
- Zergatik daude erronka horiek?
- Zer erronka daude sistema handiagoan?
- Zein dira blokeoak?
- Zeintzuk dira arrakastarako eta aldaketarako dituzun iturri garrantzitsuenak?
- Nolakoa izango litzateke, zure iritziz, sistema hobe bat?
- Zer ekimenek izango luke, ezarri gero, eragin handiena zuretzat? Eta sistema osoarentzat?

- Sistemako elementu batzuk bakarrik aldatzeko aukera izango bazenu, zer aldatuko zenuke?
- Norekin hitz egin behar dugu?

#### 4.urratsa

Bisitaren ondoren, hausnartu eta egin txosten bat: zure ikerketa-prozesuaren emaitzak jasotzeko eta baliatzeko, egin ezazu txosten-prozesu diziplinatu bat bisita bakoitzaren ondoren. (Mantendu jardueran kontzentratuta: ez piztu sakelako telefonorik txostena amaitu arte).

Hona hemen txostena egiteko erabil ditzakezun galdera batzuk:

- Zer izan da harrigarriena edo gutxien espero nuena?
- Zerk hunkitu nau? Zerrek izan dut konexio pertsonal bat?
- Bisitatutako erakundearen edo komunitatearen eremu soziala (edo sistema bizia) izaki bizidun bat balitz, zer itxura izango luke eta nola sentituko litzateke?
- Izaki horrek hitz egin ahal izango balu: zer esango liguke?
- Izaki hori garatu ahal izango balitz, zertan bilakatu nahiko luke orain?
- Zer da eremu sozial honi garatzea eta aurrera egitea ahalbidetzen dion iturria?
- Zer faktore mugatzailek eragozten dute eremu/sistema hori gehiago garatzea?
- Eremu honetarako sartu-irtenean, zer sumatu duzu zuri buruz?
- Zer ideia sortzen ditu esperientzia honek abian jarri nahi dituzun prototipoak sortzeko balizko ekimenei dagokienez?

#### 5.urratsa

Itxi atzeraelikadura-zikloa zure anfitrioiekin: bidali mezu elektronikoa bat (edo beste jarraipen ohar bat) bileratik atera zenuen funtsezko ideia bat adieraziz (esaldi bat edo bi) eta eskerrak emanez.

#### 6.urratsa

Egin txostena talde gisa: egun bateko ikasteko bidaiaren ondoren, talde osoarekin egingo den hurrengo bileran egingo litzateke hausnarketa eta txostena. Hainbat eguneko ikasteko bidaiak egin badira, izan ezazu egun solteen artean biltzeko asmoa, logistikak horretarako aukera ematen badu.

Talde osoak txostena egiteko bileraren egitura:

- Bermatu denak berdin eguneratzen dituzula bidaiei buruzko informazio zehatza emanez: nora joan ziren, norekin hitz egin zuten, zer egin zuten...
- Hitz egin zure aurkikuntzei buruz eta sortu ideia berriak.